



Globalkultura Elkartea irabazi asmorik gabeko kultur elkartea da
1. sekzioan inskribatuta: AS/B/11779/2005 zk.
IFK.: G95362216
Posta kutxa 5105
48009-Bilbo (Bizkaia)
+34 944 436 411
info@globalkultura.net

«OROIMENAREN SAREAK» KONTAKIZUN LABURRAREN SARIAREN DEIALDIA BIZKAIA, 2007

GLOBALKULTURA ELKARTEAK, BIZKAIKO FORU ALDUNDIKO Kultura Sailaren laguntzarekin, «**OROIMENAREN SAREAK, 2007**» **KONTAKIZUN LABURRAREN SARIRAKO** deialdia egiten du. Helburua herritarren sentsibilizazioarekin jarraitzea da, gure iragana ezagutu eta mantentzeko garrantziaren gainean.

Aro honetan eta toki honetan jaio izanaren aukerak lekuko pribilegiatu bihurtzen gaitu gure herrialdearen Historiaren azken aldian: Industriaren eta merkataritzaren jarduerak azken 100 urteetan izan duten garrantziak, meataritzak, ontzigintzak, trenbideak, siderurgiak, ehungintzak, arrantzaren industriak, industria kimikoak, portuen jardunak, merkataritzarenak, nabigazioak, jarduera haietatik geratzen denak, marraztu zen paisai berriak, eta abarrek eratzen dute «**OROIMENAREN SAREAK**» izeneko **SARI** hau.

GLOBALKULTURA ELKARTEAK hurbilen dugun historia berreskuratu nahi du, idazleen begirada arretatsutik aztertuta. Pertsonen istorio onenak, gure ohiturak, gure bizimodua, gure herrialdea, gure ohiturak, ametsak eta lorpenak; mendixka, muino eta mendietatik hasi eta lanabes, itsasontzi, makina, ogibide, fabrika eta baserrietaraino, XX. mendeko Bizkaiko ogibide, objektu eta toki ezberdinetaraino izan ahalko dira kontakizun hauen xede.

Historiaren prozesu horretan parte hartu zutenen zuzeneko lekukotza literarioa erabili eta islatzea sustatzean datza, gure gertueneko iragana eratzeko horrek. Gertaerak bizi izan zituztenen oroitzapenean oinarritutako Historia honek iraganaz dakiguna areago dezake, argazki isilei ahotsa jartzean. Hori baliabide bereziki garrantzitsua da oroimena gordetzeko.

Eta oroitzapenak edo sormen literarioa bultzatu eta pizteko, eleberria postal edo argazki batetik abiatuz gauzatzea proposatzen dugu. GLOBALKULTURA ELKARTEAREN web orrialdean, 1901 eta 2000 arteko data duten postal batzuk jarri dira, eta parte-hartzaileek horiek erabili ahalko dituzte horien gainean idazteko. Jada argitaratutako argazki batean edo familiaren inguruko argazki batean oinarrituz ere idatzi ahal da.

Kontakizun sarituak zuzenean argitaratuko ditu GLOBALKULTURA ELKARTEAK edo beste argitalpen enpresa batek, egileentzako inolako mozkinik izan gabe, eredu bakoitzeko lehen saria salbuespen.

Lehiaketa honek ez du irabazi asmorik eta GLOBALKULTURA ELKARTEAK ez du beretzat gordetzen testuen gaineko inolako eskubide intelektualik, ezta testu sarituen gainekorik ere. Testuen jabetza intelektuala egileena izango da; edonola ere, saridun suertatzen direnen nahiz accesita eskuratzen dutenen argitalpen eskubideak GLOBALKULTURA ELKARTEAK lehen edizio batean argitaratzeko lagako dira, betiere, egilearen izena aipatuta eta helburua gure kultura zabaldu eta sustatzea izanda. Gainera, GLOBALKULTURA ELKARTEAK testu onenak erabili ahalko ditu lehiaketaren etorkizuneko edizioak sustatzeko, betiere, egilea nor den aipatuz.

«OROIMENAREN SAREAK, 2007» SARIAREN OINARRIAK

Epea 2007ko urriaren 20era bitarte dago irekita

PARTE-HARTZAILEAK: 18 urtetik gorako edozein pertsona. Egile bakoitzak hiru lan aurkeztu ahalko ditu gehienez, nahiz eta sari bakarria eskuratzeko aukera izango duen. Obraren titulartasuna eta horren gaineko eskubideak testua aurkezten duen egilearenak izango dira bakar-bakarrik, eta hirugarren batzuek horren inguruko eskubiderik erreklamatu ez dutela eta testua lehiaketa hau baino lehen argitaratu ez dela ziurtatu beharko da. Lanak izengoiti batekin sinatu beharko dira. Epaimahaikideek parte-hartzaile izengoitia duten testuak bakarrik eskuratzeko dituzte. Gainerako datuak datu basean artxibatuko dira saria egokitzen den egunera arte, eta horiek eskuratzeko aukera Lehiaketan idazkari lanak egiten dituen pertsonak bakarrik izango du.

GAIA: aurkeztutako lanek emakume edo gizon bat izan beharko dute protagonista, bilobarekin hitz eginez toki, objektu, ogibide, egoera edo pertsonai baten bati buruz, egiazkoak nahiz fikziozkoak. Eta oroitzapen edo sormen literarioa bultzatu eta pizteko, kontakizunaren oinarrian 1901 eta 2000 urteen arteko postal edo argazki bat izatea proposatzen dugu. Postal edo argazki horrek esanahi berezia izango du egilearentzat Bizkaiko XX. mendeko egunerokoa islatzeko.

GLOBALKULTURA ELKARTEAREN web orrialdean, 1901 eta 2000 arteko data duten postal batzuk jarri dira, eta parte-hartzaileek horiek erabili ahalko dituzte horien gainean idazteko. Jada argitaratutako argazki batean edo familiaren inguruko argazki batean oinarrituz ere idatzi ahal da.

Egile bakoitzak nahi duen irudia erabili ahalko du kontakizuna idazteko, betiere, argazkia 1901 eta 2000 artekoa bada eta Bizkaiko tokiak, objektuak, ogibideak, egoerak edo pertsonaiak islatzen baditu.

EREDUAK: bi eredu izango dira: euskara eta gaztelera; testuek 1000 hitz gutxienez eta 2500 gehienez izango dituzte (3 eta 7 orrialde artean gutxi gorabehera).

AURKEZPEN EPEMUGA: kontakizunak aurkezteko epemuga 2007ko urriaren 20ean amaitzen da, 14:00etan.

AURKEZPENAREN FORMATUA:

- **Posta arrunt bidez** (zigilu-markaren data izango da kontuan) GLOBALKULTURA ELKARTEAREN helbidera helaraziz, 5105 posta kutxa, 48009-Bilbo. Lanak bi gutun-azaletan aurkeztu beharko dira:

A gutun-azalean, alde bakarretik inprimatutako ale bakarria bidaliko da, tarte bikoitza utziz lerroen artean, DIN-A4 tamainako paperean. Horrekin batera, lana ekarri duen argazkiaren kopia erantsiko da eta Word formatuan grabatutako testua duen CDa, eta kontakizunaren izenburua, izengoitia eta A letra bakarrik idatzi beharko da kanpoaldean. Horrela, bada, ez du egilea identifikatzeko xehetasunik izango.

B gutun-azalean, behar bezala betetako izen-emate fitxaren idazkitxia aurkeztu beharko da, hurrengo datu pertsonalak bilduz: Izena, abizena, helbide osoa, telefonoa, posta elektronikoa, zein eredutan parte hartzen den eta izengoitia. Idazkitxiaren gutun-azalak lanaren izenburua, izengoitia eta B letra izango ditu kanpoaldean.

• **Testua, idazkitxia eta irudia posta elektronikoz** helarazi ahalko dira ere helbide honetara: sareak-saria@globalkultura.net. Kasu horretan, "gaia" atalean izengoitia eta obraren titulua adierazi beharko dira eta fitxategi erantsi moduan honakoak bidali:

lan-izengoitia.doc
Idazkitxia-izengoitia.doc
Irudia-izengoitia.doc

EPAIMAHAIA: Epaimahaia GLOBALKULTURA ELKARTEAK aukeratuko du eta kulturaren eremuan ospea duen pertsona kopuru bakoitiak eratuko du. Epaimahaikideen nortasuna ez da jakinaraziko sariak ematen diren egunera arte.

Epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da, eta oinarri hauetan aurrez ikusi ez den eta gerta daitekeen beste edozein inguruabar ebazteko ardura ere izango du epaimahai horrek.

SARIAK: Epaimahaiak eredu bakoitzeko 10 testu finalistak aukeratuko ditu. Horien artean, bi sari bakarrik emango dira

Euskarazko kontakizun onenari saria: irabazleak 1250 euroko saria jasoko du dirutan.

Gaztelazko kontakizun onenari saria: irabazleak 1250 euroko saria jasoko du dirutan.

Eredu bakoitzeko **bederatzi finalistak kontakizunentzako accesita;** horiek eta bi ereduetako irabazleenak kasuan kasuko argitalpenean sartuko dira.

Sariak hutsik gelditu ahalko dira epaimahaiaren ustetan aurkeztutako lanek ez badute behar adina kalitate lortu. Sariak web orrialdean argitaratuko dira eta telefonoz jakinaraziko zaizkie irabazleei.

Hizkera ez sexista erabiltzeari garrantzia berezia emango zaio. Automatikoki atzera botako dira edukian lehiaketaren forma edo teknika betekizunak errespetatzen ez dituzten horiek, pertsonen oinarritzko eskubideen aurka egiten dutenak bezalaxe.

Saritu ez diren originalak egileei itzultzeko aukera izango da, haiek idatziz eskatzen badute 2008ko urtarrilean. Hilabete hori igarota, eskatu ez diren eta saritu ez diren kontakizun guztiak suntsitu egingo dira.

Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarri hauek erabat onartzen direla esan nahi du.

INFORMAZIOA ETA OINARRIAK: GLOBALKULTURA ELKARTEA
5.105 posta kutxa48009 – Bilbo
Tel. eta faxa: 944 436 411
<http://globalkultura.net>
info@globalkultura.net

DEIALDIAREN EGILEA:



DIRUZ LAGUNTZEN DUTE:





Globalkultura Elkartea irabazi asmorik gabeko kultur elkartea da
1. sekzioan inskribatuta: AS/B/11779/2005 zk.
IFK.: G95362216
Posta kutxa 5105
48009-Bilbo (Bizkaia)
+34 944 436 411
info@globalkultura.net

I. ERANSKINA – IZEN-EMATE FITXA

OROIMENAREN SAREAK 2007 SARIA - GLOBALKULTURA

PARTE-HARTZAILEAREN DATUAK

Abizenak:.....
Izena:
Helbidea:
Udalerrria: Probintzia:
PK: Telefonoa:
Posta elektronikoa:

Aurkezten duenaren izengoitia:
Zein eredutan parte hartzen duen:
Euskarazkoan..... Gaztelerazkoan

Aurkezten duen izenburua:.....

Aurkezten duen izenburua:.....

Aurkezten duen izenburua:.....

«**OROIMENAREN SAREAK 2007**» **KONTAKIZUN LABURRAREN SARIAN** parte-hartzaile moduan onar dezatela eskatzen du; horretarako, deialdiaren oinarrietan eskatutako guztia aurkeztu du eta adierazitako oinarri horiek erabat onartu ditu.

.....-N, 2007KO-REN-(E)AN.